

# DATU PERTSONALEN BABESA

## INFORMAZIO GEHIGARRIA - EKITALDIAK

Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudiari jarraituz, bi arau hauek osatzen dute:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (aurrerantzean, «DBEO»).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, «DBLO»).

Ibercajak datu pertsonalak tratatzeko legezko baldintzen berri ematen die interesdunei, honako atal hauen arabera:

|                                                                                             |   |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| 1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna? .....                                      | 2 |
| 2. Datu pertsonalen zer kategoria tratatuko ditu Ibercajak?.....                            | 2 |
| 3. Zertarako eta zein legitimaziorekin tratatzen ditu Ibercajak nire datu pertsonalak?..... | 3 |
| A. Ibercaren interes legitimoagatik .....                                                   | 3 |
| B. Legez nahitaezkoak diren tratamenduak.....                                               | 4 |
| C. Baimenean oinarritutako tratamenduak .....                                               | 5 |
| D. Etorkizuneko beste erabilera batzuk (Ibercaja Bankuaren bezero izatera iristen bazara)   | 6 |
| 4. Zein hartzaileri jakinaraziko zaizkie zure datuak? .....                                 | 6 |
| 5. Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak? .....                                        | 7 |
| 6. Zeintzuk dira datu pertsonalei buruzko zure eskubideak? .....                            | 8 |
| 7. Nor da Ibercaren Datuak Babesteko Ordezkarria? .....                                     | 9 |

## 1. Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

**IBERCAJA BANCO SA** (aurrerantzean, «Ibercaja»), Espainiako Bankuaren Erregistro Berezian 2085. kodearekin inskribatutako kreditu-erakundea.

Egoitza soziala: Basilio Paraisoren plaza, 2 – 50008 Zaragoza

Harremanetarako helbide elektronikoa: [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es)

Web-orria: [www.ibercaja.es](http://www.ibercaja.es)

## 2. Datu pertsonalen zer kategoria tratatuko ditu Ibercajak?

DBEOn eta DBLOn aurreikusitakoaren arabera, Ibercajan jarraian azaltzen den moduan tratatuko ditugu zure datu pertsonalak.

Gure jarduera guztietarako zure datu pertsonal guztiak erabiliko ez ditugunez, dokumentu honetan zehar kasu bakoitzean tratatu beharko ditugun datu pertsonal moten berri emango dizugu:

| Kategoria                 | Datu pertsonalak                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|---------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Identifikazio-datuak      | Izen-abizenak, generoa, bizilekua, NANA, pasaportea edo AIZ, jaiotze-data, nazionalitatea, eta ahotsari eta irudiari buruzko datuak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| Harreman-datuak           | Posta arrunt, telefono eta posta elektronikoa bidez harremanetan jartzeko informazioa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Datu profesionalak        | Pertsona juridiko baten harremanetarako pertsona gisa edo kargu instituzional baten jardunean agertzen bazara, zure identifikazio- eta harreman-datuak tratatuko ditugu, baita zure karguari, funtzio profesionalari, enpresa enplegatzaileari edo kide zaren erakunde edo organismoari buruzko informazioa ere. Datu horiek zuzenean eman ditzakezu zuk edo lotuta zauden erakundeak, eta sarbide publikoko iturrietatik ere lortu ditzakegu, hala nola erregistro ofizialetatik, direktorio profesionaletatik edo webgune korporatiboetatik, harreman profesionala edo instituzionala kudeatzeko eta harreman horretan behar diren komunikazioak mantentzeko. |
| Kategoria bereziko datuak | Ekitaldian parte hartzearen ondorioz kategoria bereziko datuak ematen badizkiguzu, bereziki alergieiei, elikadura-intolerantziei edo zure osasunarekin edo behar pertsonalekin lotutako beste inguruabar espezifiko batzuei buruzko informazioa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |

### 3. Zertarako eta zein legitimaziorikin tratatzen ditu Ibercajak nire datu pertsonalak?

DBEOK eta DBLOK ezartzen dute pertsona baten informazioa (haren «datu pertsonalak») arau horietan berariaz aurreikusitako oinarri legitimatzaileetako bat betetzen bada bakarrik trata daitekeela. Zehazkiago, eta horri dagokionez, DBEOren 6. artikulua datu pertsonalen tratamendua justifikatzeko eta legitimatzeko aurkez daitezkeen oinarri legitimatzaileen zerrenda itxi bat ezartzen du.

Oinarri legitimatzaile baten edo bestearen aplikazioa, nagusiki eta funtsean, datu pertsonalak zertarako, hots, zein helbururekin tratatzen direnen mende dago.

Aurrekoa esanda, Ibercajan zure datuak tratatuko ditugu, ondoren zehazten ditugun helburu eta oinarri legitimatzaileen arabera.

#### **A. Ibercaren interes legitimoagatik**

Ibercajak beste tratamendu gehigarri batzuk egingo ditu, jarraian zehaztuko direnak, DBEOren 6.1.f) artikuluan aurreikusitako interes legitimoaren babesean, bere ustez ez diotelako eragingo bezeroek beren datu pertsonalak babesteko duten eskubideari. Agindu horrek baimena ematen du *«tratamenduaren erantzuleak edo hirugarren batek bilatzen dituen bidezko interesak asetzeko beharrezkoak diren tratamenduak egiteko, betiere interes horien gainetik interesdunaren oinarritzko interesak edo eskubideak eta askatasunak nagusitzen ez badira, eta, bereziki, interesduna haurra denean»*.

Tratamendu horiei dagokionez, eskubidea duzu (i) «interes legitimo» hori zertan datzan jakiteko, (ii) jakiteko Ibercaja nola iritsi den zure datu pertsonalen babesari ez diotela eragiten ondorioztatzera, edo (iii) zuzenean horien aurka egiteko. 6. paragrafoan ([«Zein dira zure datu pertsonalen gaineko eskubideak?»](#)) zehazten diren bideetatik egin ahal izango duzu, aurkaratzen duzun tratamendu zehatza eta zure eskaeraren arrazoiak adierazita.

Horietatik guztietatik, Ibercajak «haztapen-proba» bezala ezagutzen dena egin du. Barne-azterketa bat da, egiaztatzeko Ibercaren interes legitimoak ez diela bere bezeroen datu pertsonalei eragiten horiek babesterakoan. Dagokion probari buruzko informazio gehiago eskuratu dezakezu [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbide elektronikora eskaera bat bidalita.

- Ibercajan zure datu pertsonalak tratatuko ditugu, egiten diguzun edozein eskaera edo kontsultari erantzun eta izapidetu ahal izateko. Zure datuak tratatuko ditugu, bereziki, eskatzen diguzun bakoitzean laguntza emateko, bai gure webgunearen bidez, baita gure harremanetarako telefonoen bidez edo une bakoitzean zure eskura jar dezakegun beste edozein bideetatik ere. Kasu honetan, uste dugu Ibercajan interes legitimoa dugula ematen diguzun informazioa erabiltzeko, egiten dizkiguzun kontsultei erantzun ahal izateko.

Ibercajak tratamendu hori neurtzeko proba bat egin du, araudiak eskatzen duen moduan. Proba horren ondorio gisa, eta laburbilduz, ulertzen dugu (i) zure pribatutasunari ez diogula kalterik egiten Ibercajan zuk egin dizkiguzun eskaerei

erantzuteko dugun interesagatik; (ii) zure datuak zure kontsulta edo iradokizunei erantzuteko baino ez dira erabiliko.

- Kasu batzuetan, parte har dezakezun edo gonbidatu zaitzakegun lehiaketak, zozketak edo ekitaldiak ere antolatuko ditugu. Jarduera horiek orokorrak (pertsona guztientzat) edo partikularrak (baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonentzat) izan daitezke.

Jarduera horietan batean parte hartzen duzunean, zure datu pertsonalak tratatu beharko ditugu zozketan egindako partaidetza (hala badagokio, zurekin harremanetan jartzeko eta dagokizun saria emateko) edo ekitaldian egindako izen-ematea edo ekitaldirako dagokion gonbidapenaren bidalketa behar bezala kudeatzeko. Helburua da zurekin dugun interakzioa hobetzea eta aprobetxa ditzakezun onura jakin batzuk zure eskura jartzea, zenbait produktu eta zerbitzu zozketatuta eta egiten ditugun ekitaldietara gonbidatuta.

Tratamendu horretarako ere, Ibercajak haztapen-proba bat egin du. Ondorio gisa, uste dugu tratamenduak ez diola eragiten pribatutasunerako duzun eskubideari; izan ere, (i) zozketetan, ekitaldietan edo lehiaketetan parte hartzea borondatezkoa da, eta, hala egiten ez baduzu, ez da inolako kalterik sortuko.

Nolanahi ere, ekitaldi, zozketa edo lehiaketei aplika dakizkiekeen termino zehatzak dagozkien lege-oinarrietan zehazten eta adierazten direnak izango dira, eta horien berri behar bezala emango zaizu.

## B. Legez nahitaezkoak diren tratamenduak

Halaber, Ibercajak zure datuak tratatuko ditu unean-unean eska dakizkiokeen legezko betebeharrak betetzeko, besteak beste, jarraian adierazten diren arauetan aurreikusitakoak. Ibercaja legez behartuta dago tratamendu horiek egitera, eta horrek erabateko zilegitasuna ematen dio. Hala xedatzen du DBEOren 6.1.c) artikulua: «*Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren erantzuleari aplika dakioken legezko betebeharrak bat betetzeko*».

- 58/2003 **Zergen Lege Orokorra**, abenduaren 17koa. Arau hori betetzeak zuri buruzko informazioa zerga-administrazio eskudunei jakinaraztea dakar, eta zerga-ondorioak sor ditzake. Hori guztia, indarrean dagoen zerga-legeriak une bakoitzean ezartzen duenaren arabera, betiere.
- 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, **kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko Lege Orokorraren** eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onartzen duena.
- **Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua**, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.

- **3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.**

Azken bi arau horiek Ibercaja behartzen dute, zure datu pertsonalen tratamenduaren legezko arduraduna den aldetik, datuen babesaren arloan aurkezten diren eskaerei, eskubideen egikaritzari eta erreklamazioei erantzutera.

**Horrez gain, indarrean dauden lege-xedapen aplikagarriekin bat etorriz, epaitegi edo auzitegi batek, Estatuko segurtasun-kidego eta -indarrek edo eskumena duen beste edozein agintari edo administrazio publikok zure datu pertsonalak emateko eskatuko baligu, datu horiek ere tratatu eta jakinaraziko genituzke, lege horretara behartuta daudelako.**

Kontuan izan legezko betebeharrak jakin batzuk egongo direla eta Ibercajak beteko dituela, baita zurekin harremana amaitu ondoren ere, lege horretara behartuta gauden bitartean.

### C. Baimenean oinarritutako tratamenduak

Badira Ibercajak egin nahi dituen eta alde zuzenetik baimena ematearen mende dauden tratamendu batzuk. Tratamenduen oinarri legitimatzailea Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.a) artikuluan aurreikusitakoa da, eta Ibercajak horien tratamendua egin ahalko du «*interesdunak baimena eman izan badu bere datu pertsonalak helburu espezifiko baterako edo batzuetarako tratatzeko*». Beraz, ondorengo puntuetan aurreikusitakoa zuk horretarako baimena ematearen mende dago.

- Datuak babesteko araudiak aurreikusten dituen baldintzak betez, Ibercajak baimena eskatuko dizu Ibercajatik eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzu finantzario eta ez-finantzarioei buruzko komunikazio komertzialak bidaltzeko – bitarteko elektronikoen bidez edo ez (postaz, telefonoz, SMSz, posta elektronikoz, bat-bateko mezularitza-sistemaz edo une bakoitzean eskuragarri dagoen beste edozein bitarteko elektronikoz edo telematikoz) –, bai eta zure taldeko erakundeei (horien izen soziala, jardueramota eta helbidea Ibercajaren bulego bakoitzeko iragarki-taulan eta <https://www.ibercaja.es/gdpr/talde>) (info+) edo Ibercaja Banku Fundazioan ere.

Baimena ematen baduzu, merkataritza-komunikazio horiek guk bidaliko dizkizugu, Ibercaja Bankuak.

Horretarako, Ibercajak baimen-eskaera bat egingo dizu, onar dezazun. Jakina, jakin ezazu edozein unetan ken dezakezula zure baimena, inolako kalterik eragin gabe (baina horrek ez du eraginik izango zure datuekin ordura arte zure datuei buruz egin izan dugun tratamenduaren legimitatean, ez baitu atzeraeraginik).

- Horretarako emandako inprimakien bidez baimena eman baduzu, Ibercajak datu pertsonal jakin batzuk (zehazki, zure ahotsa eta/edo irudia) tratatu ahal izango ditu erakundeak antolatzen dituen edo parte hartzen duen eta joan daitekeen ekitaldi edo foroen esparruan. Tratamendu horren helburua izango da Ibercajaren kanal ofizialetan erreproduzitzea eta zabaltzea, informazio- eta/edo merkataritza-helburuekin, dagokion baimenean aurreikusitako baldintzen arabera.

Jakina, jakin ezazu edozein unetan ken dezakezula zure baimena, inolako kalterik eragin gabe (baina horrek ez du eraginik izango zure datuekin ordura arte zure datuei buruz egin izan dugun tratamenduaren legimitatean, ez baitu atzeraeraginik).

- Informazio hori eman baduzu eta alde zure aurretik berariazko baimena eman baduzu, Ibercajak alergieiei, intolerantziei edo zure behar pertsonalekin lotutako beste inguruabar espezifiko batzuei buruzko datu pertsonalak tratatu ahal izango ditu, osasunari buruzko datuak izateagatik datu-kategoria berezizat hartzen direnak. Tratamendu horren helburu bakarra izango da joaten zaren ekitaldien antolaketa, kudeaketa eta garapen egokia bermatzea, zure behar espezifikoak erantzuteko aukera emanez.

Tratamendua helburu horretarako behar diren datuetara mugatuko da, eta dagokion baimenean jasotako baldintzen arabera egingo da.

Jakina, jakin ezazu edozein unetan ken dezakezula zure baimena, inolako kalterik eragin gabe (baina horrek ez du eraginik izango zure datuekin ordura arte zure datuei buruz egin izan dugun tratamenduaren legimitatean, ez baitu atzeraeraginik).

Nolanahi ere, ez baduzu nahi Ibercajak zure osasun-datuak helburu horrekin tratatzea, ekitaldietan parte hartu ahal izango duzu, zuretzako inolako kalterik eragin gabe, baina Ibercajak ezin izango du ekitaldiaren garapena zure behar espezifikoetara egokitu.

#### **D. Etorkizuneko beste erabilera batzuk (Ibercaja Bankuaren bezero izatera iristen bazara)**

Azkenik, jakin behar duzu gurekin edozein kontratu sinatzen baduzu eta Ibercajako bezero bihurtzen bazara, kontratatutako produktu edo zerbitzuari aplikagarri zaion pribatutasunari buruzko legeko informazio espezifiko guztia emango dugula bertan.

#### **4. Zein hartzaileri jakinaraziko zaizkie zure datuak?**

Zure datu pertsonalak modu formalean hala eska diezaguketen hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie, baldin eta lege behartuta bagaude horiek ematera. Zerga Agentzia, Epaitegi eta Auzitegiak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak bezalako erakundeez ari gara.

##### ***Hirugarren zerbitzu-hornitzaileak***

Aurreko datuen komunikazioak alde batera utziz, Ibercajak hirugarren zerbitzu-hornitzailearen lankidetzat izango du, eta horiek zure datu pertsonaletarako sarrera izan dezakete. Adierazitako datuak zerbitzuak ematearen ondorioz, Ibercajaren izenean eta horren kontura tratatuko dituzte, eta gure aginduak jarraituko dituzte.

Ibercajak zerbitzu-hornitzaileak hautatzeko irizpide egokiak jarraitzen ditu, datuen babesaren arloan dituen betebeharrak betetzeko, eta haiekin datuen tratamendurako dagokion kontratua

sinatzeko konpromisoa hartzen du. Kontratu horren bidez, besteak beste, honako betebeharrak ezarriko dizkie: neurri tekniko eta antolamendu-neurri egokiak aplikatzea; datu pertsonalak hitzartutako helburuetarako tratatzea eta Ibercajaren jarraibide dokumentatuak bakarrik betetzea; eta, datuak ezabatzea edo Ibercajari itzultzea, zerbitzuak ematen amaitu ondoren.

Zehazki, Ibercajak bere jarduerak gauzatzen duten hirugarren hornitzaileen zerbitzu-prestazioa kontratatatu ahal izango du, azalpen gisa, honako sektore hauetan: logistika-zerbitzuak, aholkularitza juridikoa, mantentze-lanekin lotutako enpresak, zerbitzu teknologikoen hornitzaileak, zerbitzu informatikoen hornitzaileak, segurtasun fisikoko enpresak, berehalako mezularitza-zerbitzuen emailak.

#### *Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikotik kanpo transferitzea*

Oro har, goian aipatutako hirugarrenak Europako Esparru Ekonomikoaren barruan daude, hornitzaile jakin batzuk izan ezik, horien zerbitzuek zure datu pertsonalak lurralde horretatik kanpo transferitzea eragin edo eska baitezakete. Kasu horietan, Ibercajak jarduerak hauek egingo ditu:

- (i) DBEOn adierazitako neurriak eta bermeak hartuko dira, zure datu pertsonalen babes-maila ez dela urrituko bermatzeko.
- (ii) Hala badagokio, Europako Batzordeak helmugako herrialdera egokitzeko erabakirik duen edo ez adieraziko zaizu, edo, bestela, hartutako bermeak, bereziki Europako Batzordeak onartutako Kontratu Klausula Motak sinatuta izatea.

Adierazitako berme egokiei buruzko informazio gehigarria eska dezakezu, baita, hala badagokio, berme horien kopia bat ere, [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbide elektronikora zuzendutako eskaeraren bidez.

### **5. Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?**

Ibercajan ematen diguzun informazioa soilik gordeko dugu eskatu diguzuna kudeatzeko eta erantzuteko beharrezkoa den denboran, edo merkataritza-komunikazioak bidaltzeko baimena kentzen diguzun arte.

Era berean, parte hartzen duzun ekitaldi, zozketa edo lehiaketak kudeatzeko, antolatzeko eta gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran gordeko ditugu zure datu pertsonalak, baita horien ospakizuna eta horiei lotutako ondorengo jarduerak ere.

Ondoren, behar bezala blokeatuta gordeko ditu zure datu pertsonalak, horiek ezabatu aurretik, eska dakizkiokeen legezko betebeharrak guztiak betetzeko, aplikatu beharreko araudiak kasu bakoitzean ezartzen dituen epeetan, eta egon daitezkeen erreklamazioei aurre egiteko eta agintari eskudunen eskura izateko, legez ezarritako preskripzio-epeetan. Kasu horietan, beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditugu, helburu horretarako bakarrik erabiltzen direla bermatzeko.

## 6. Zeintzuk dira datu pertsonalei buruzko zure eskubideak?

Datuak babesteko araudiak hainbat eskubide aitortzen dizkizu. Eskubide horiek ezagutu behar dituzu, eta zure pribatutasuna babesteko eta zure datu pertsonalen erabilera kontrolatzeko erabil ditzakezu. Bereziki:

- Ibercajan zuri dagozkien datu pertsonalak tratatzen ari garen ala ez egiaztatzeko eskubidea duzu; eta, tratatzen ari bagara, datuok atzitzeko edo, okerrak direla uste baduzu, horiek zuzen daitezela edo, hala badagokio, ezaba daitezela eskatzeko, besteak beste, beharrezkoak ez direla uste baduzu, kontuan hartuta zertarako eman zenizkigun.
- Egoera jakin batzuetan, zure datuen tratamendua muga dadila eskatu ahal izango duzu.
- Kasu jakin batzuetan, zure egoera bereziarekin lotutako arrazoiengatik, eta Ibercajan zure datuak tratatzen ditugun egoeretan, gure interes legitimoa dela-eta, zure datuen tratamenduaren aurka egin ahal izango duzu. Kasu horretan, Ibercajak utzi egingo dio horiek tratatzeari, premiazko arrazoi legitimoak daudenean edo erreklamazioak egin edo haien aurrean defendatu behar denean izan ezik.
- Era berean, zure datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango duzu erabilera komune eta irakurketa mekanikoko formatu batean.
- Une horretatik aurrera eta ondorengo beste edozein unetan, egoki deritzozunean eta Ibercajarekin duzun harremana inola ere eragotzi edo kaltetu gabe, eman diguzun edozein baimen kentzeko aukera duzu. Hala ere, zehaztu behar dugu, halaber, baimena kentzen baduzu, une horretatik aurrera izango dituela ondorioak, eta, beraz, ez diola eragingo Ibercajan eginga dugunaren balioari.
- Zure datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakiak hartzen badira, profilak egitea barne, giza esku-hartzea eskatu, zure ikuspuntua adierazi eta erabakiak aurkaratu ahal izango dituzu.

Aurretik adierazitako eskubide guztiak erabil ditzakezu Ibercajak zure eskura jartzen dituen bide hauetako baten bidez:

- (i) Ibercajaren Datuak Babesteko Ordezkaritari zuzendutako idazkia (Plaza de Basilio Paraíso 2 – 50008, Zaragoza).
- (ii) Posta elektronikoa Ibercajako Datuen Babeserako ordezkaritaren helbidera ([dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es)).
- (iii) Datu Pertsonalen gaineko Eskubideak Erabiltzeko web-inprimakia, hemen eskuragarri dagoena: <https://www.ibercaja.es/forms/ejercicio-de-derechos/>.

Horri dagokionez, segurtasun-arrazoiengatik, Ibercajaren erantzukizunpeko edo zaintzapeko informazioaren sentsibilitatea kontuan hartuta eta zure eskaera aurkezten duzun bidearen

arabera, kasu jakin batzuetan informazio edo dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango dizugu zure nortasuna egiaztatzeko, hirugarren pertsonak zure nortasuna ordeztu eta zure datu pertsonalak legez kanpo eskuratu edo aldatzea saihestearren.

Era berean, zure datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako zalantzak aurkez diezazkiokezu Ibercajaren Datuak Babesteko Ordezkariari (Plaza de Basilio Paraíso, 2 – 50008 Zaragoza) zuzendutako idazki baten bitartez edo [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbidera bidalitako mezu elektronikoen baten bidez.

Amaitzeko, edozein erreklamazio aurkez dezakezu Ibercajan edota Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (datuen babesaren arloan eskumena duen kontrol-agintaritza baita), batez ere eskubideren bat erabili baduzu eta legez ezarritako baldintzetan erantzun ez badizugu, idazki bat igorrita [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es) helbidera edo <https://www.aepd.es> web-orriaren bitartez.

## **7. Nor da Ibercajaren Datuak Babesteko Ordezkaria?**

Ibercajan pertsona bat izendatu dugu, Datuak Babesteko Ordezkaria, zure pribatutasuna eta intimitatea babesteko, baita Espainiako zein Europako datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren legezko eskakizun guztiak betetzen ditugula bermatzeko ere.

Pertsona hori arduratuko da zure datu pertsonalei buruz behar duzun informazio guztia emateaz. Harekin harremanetan jarri behar baduzu, helbide elektronikoen honen bidez egin dezakezu: [dpo@ibercaja.es](mailto:dpo@ibercaja.es).

*Azken eguneratzea: 2026ko uztailaren 29a*